

# Asisko gutuna

2022ko martxoan 1. printzipioa. Eguneroko bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala 161. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Esperantzarik gabeko fedeak uste izate hutsean gera daiteke, eta itxaropenik gabeko maitasunak etika hutsean. Itxaropenak bihotza bizkortzen digu ikusten eta kontrolatzen dugunetik harago.

## Gogoetarako gaia

### *Itxaropena Jainkoarengan*

Jainkoa edo berari lotua dauden gauzak gogotik desira ditzakegu. Bihotz osoz bizi nahi dugu begirada Harengan jarri. Gizon-emakume eskuzabalak izatera iritsi nahi dugu. Helburu bikainak proiektatzen ditugu borondate onenarekin familian, ebanjelizazioan, gizarte-konpromisoan... Eta ahalegindu ere ahalegin gintezke sineskera, doktrina zuzenak, bizitza espiritualak, kristautasunarekin eta Elizarekin bat datozen pentsaerak indartzen.

Baina eguneroko martxaren zurrumbiloak Jainkoaren arrastoa galtzera garamatza ia beti, eta gure harridurarako nahi baino mundutarragoak garela aurkitzen gara. Gure familia-, ebanjelizazio- edo elkartasun-helburuetan ere ez gara, ezta urrunetik ere, nahi genuen hartara iristen. Agian, zalantza ere sortzen zaigu, eta badirudi ezer ez dela egokitzen buruan eta bihotzean genituen eskema horiei; eta nondik nora jo ez dakigula aurkitzen gara.

Baina agian, modu honetan bakarrik ikas dezakegu itxaropenaren iturria ez dagoela gudan, Jainkoaren dohaina dela baizik. Horrela, itxaropena hurbilago dago esker oneko izatetik gure nahiak bete ahal izatetik baino. Jainkoagan fidatzen hasten gara, eta ez gure uste eta nahian. Orduan hasten gara ulertzen Jainkoak digun maitasuna ez dela gure merezimenduengatik, bere maitasun hutsagatik baizik. Itxaropena gehiago izango da fedean oinarritua pertsona zintzoenak izateko gure ahaleginetan baino.

Batzuek diote itxaropen hau engainua besterik ez dela bizitzako galtzaileei zuzendua. Horrela da kasu batzuetan. Baina gure itxaropena, Jainkoaganako konfiantzara itzultzeko bide hau egin ondoren, ez da engainua, opari handia baizik; oparirik handiena fedearekin eta maitasunarekin batera.

## Biblia pasartea: 2 Kor 12,7-12

Horiek direla-eta neure burua den baino handiagotzat jo ez dezadan, oinaze bat emana izan zait, haragian sartutako eztena bailitzan, harro ez nadin jo eta jo ari zaidan Satanasen ordezkaria. Hiru aldiz eskatu diot Jaunari, ken dezala hori niregandik, baina berak esan dit: «Nahikoa duzu nire laguntza, nire indarra ahulezian agertzen baita bete-betean». Gustura harrotuko naiz, beraz, neure ahuleziaz, Kristoren indarra niregan ager dadin. Horregatik, pozik nabil Kristorengatik jasaten ditudan ahulezia, laido, beharrian, erasoaldi eta estualdietan. Ahul naizenean, orduan bainaiz indartsu.

## Frantziskotar espiritualtasuna

Anaia Frantzisko anaia batzuek Ordenan etsenplu txarra ematen zutela eta anaiak beren profesioaren gailurretik behera etortzen hasia zirela konturatu zenean, behin, barneraino bihozmindurik, honela mintzatu zitzaion Jaunari otoitzean: «Jauna, zure eskuetan uzten dut eman zenidan familia».

Jaunak une berean erantzun zion: «Gizontxo simple eta ezjakin horrek, esadazu: zergatik goibel-tzen zara hainbeste, anaiaren bat Ordenatik ateratzen bada edota anaiak erakutsi nizun bidetik ez badabilta? Esadazu orobat: nork landatu du anaien Ordena hau? Nork erakartzen du gizakia penitentzia egitera? Nork ematen indar hartan irauteko? Ez ote nik? Nik ez zintudan eskolatua edo hitz ederrekoa zinelako hautatu, nire familiaren buru izateko, ez baitut nahi, ez zu eta ez bene-tako anaia eta zuri eman nizun Erregelaren egiazko gordetzaile izango direnak jakintza eta hizkera ederraren bidetik ibiltzea. Zu bezalako gizon simple eta ezjakina hautatu nuen, zuk eta zuk bezala besteek jakin dezazuen, nik zainduko dudala neure artaldea... «Horregatik diotsut, ez zaitezela aurrerantzean nahigabetu; egizu egiten ari zarena, jarraitu zeure jardunean, betiko maitasunean landatu baitut zure anaiarte. (PerIsp 81)

## Otoitza

Jauna, zuregana jasotzen dut gogo  
zeruan eta gizonen seme-alaben artean  
bizi zaren horregana.  
Nire begiak altxatzen ditut  
nire itxaropena datorren horregana.  
Zure maitasun neurrigabetik datorkit Itxaropena borborka,  
ez nauzula inoiz ahazten jakitetik.  
Gizon askok jokoan zortea izatean  
jartzen dute itxaropena  
berauei dena ongi joatean,  
beren arazoak konpontzean.  
Nire itxaropena Zure izena esatea da.  
Nire pozak zu ezagutzea du izen,  
Zure ontasun infinituaz jakitea,  
nire buruak iritsi dezakeena baino haratago.

Zu ate irekia zara,  
argiz beteriko leiho bat.  
Gizonek begiratzen didatenean,  
zergatik sinesten ote dudan galdetzen didate,  
zergatik darraizun nire itxaropena izaten.  
diot neure buruari:  
ezagutuko bazintuzte,  
Zutaz pixka bat besterik ez balekitez,  
jakingo balute zuk eman didazuna,  
ziur nago ez luketela esango esaten dutena;  
ba Zu zoragarria baitzara,  
nire oin nekatuta hartzen dituzu.  
Horregatik, guztiagatik eta betiko,  
Zu zara, Jauna, nire itxaropena.

Amen

## Gutuneko azken hitzak

Itxaropena Jainkoaren borondatea beti gure planak baino hobea dela uste izatea da. (anonimoa)

### 2022ko martxoko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate erreferentzia guztiak:

|                   |                |                      |                     |                   |
|-------------------|----------------|----------------------|---------------------|-------------------|
| 1 Mk 10,28-31     | 8 Mt 6,7-15    | 15 Mt 23,1-12        | 22 Mt 18,21-35      | 29. Jn 5,1-3.5-16 |
| 2. Mt 6,1-6.16-18 | 9 Lk 11,29-32  | 16 Mt 20,17-28       | 23 Mt 5,17-19       | 30. Jn 5,17-30    |
| 3 Lk 9,22-25      | 10 Mt 7,7-12   | 17 Lk 16,19-31       | 24 Lk 11,14-23      | 31. Jn 5,31-47    |
| 4 Mt 9,14-15      | 11 Mt 5,20-26  | 18 Mt 21,33-43.45-46 | 25 Lk 1,26-38       |                   |
| 5 Lk 5,27-32      | 12. Mt 5,43-48 | 19 Mt 1,16.18-21.24a | 26. Lk 18,9-14      |                   |
| 6 Lk 4,1-13       | 13 Lk 9,28b-36 | 20 Lk 13,1-9         | 27. Lk 15,1-3.11-32 |                   |
| 7 Mt 25,31-46     | 14 Lk 6,36-38  | 21 Lk 4,24-30        | 28. Jn 4,43-54      |                   |

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)



Asis Sarea

646 21 48 96

Martxoko otoitza hilaren  
31ean izango da.